

# Izaro Arrondo Mujika

**B** maila • Aipamena

Ni Izaro Arrondo Mujika beasaindarra nauzue. 2002ko martxoaren 4ean jaio nintzen. Gaur egun, Beasaingo Loinazpe ikastetxean 3. DBH egiten ari naiz.

Neska alaia naiz eta lagunekin ibiltzea gustatzen zait, baina baditut beste zenbait gauza ere oso gogoko: txistua jotzea, irakurtzea eta beste mundo batera honela jauzi egitea, nere hankak astinduz dantza egitea...

Beste urte batzuetan ere jaso dut sari edo aipamenen bat, baina aitortu behar dut aurtengoak ere poz handia eman didala.



## ALKOHOLAREKIN BORROKAN

Doinua: HABANERA

1. Nire izen deiturak dira  
Andoni Irribarria.  
Begiak verde-berdeak  
ilea gorri-gorria.  
Beasainen jaio nintzen,  
hura da nire herria.  
25urtekin nau  
lana aurkitu berria.  
Ondoan beti izan dut,  
famili maitagarria,  
oraingo bizimodua  
ai bai desiragarria!  
baina dena ez da izan  
beti hain zoragarria.  
Gazteagotan pasatu  
nun egoera larria.
2. Gurasok arreba ta ni  
bizi ginen laukotea.  
Umeen helburua zen,  
gerorako ikastea.  
Amaren betebeharra,  
gu zoriontsu haztea.  
Aitarena familia  
mantentzea, babestea,  
baina ez genuen lortu  
hala bizi izatea.  
Aitak egiten zuena,  
txurrutari ematea,  
etxera ailegatzean,  
denoi oihuka hastea.  
Nire desio bakarra,  
beti neurritz edatea.

3. 15urte inguru  
parrandara lagunekin.  
Probaketa hasi ginen,  
edarien nahasketekin,  
gero lotsa ezkutatzuz,  
jolasean alkoholakin,  
hasieran kontrolatuz,  
bukaeran mozkorrakin.  
Nahikoa nuen lagunek  
ondo onartzearekin.  
Horretaz gain lortzen nuen,  
bai arrakasta neskekin,  
helburu nagusia zen,  
ama eotea nirekin.  
Berak nahikoa baizuen,  
aitaren ardurarekin.

5. Bera etorri zitzaidan  
nolabait konbenzitza.  
Alkoholiko ezezagunen,  
nik laguntza eskatzera.  
Azkenen animau nintzen,  
ni bertara hurbiltzera,  
eta bultzatu ninduten  
nire barrua askatzera.  
Hangok behartu ninduten,  
ni edaria uztera,  
hasiera gorra izan zen,  
baina ona amaiera.  
Familia gertu neukan,  
etorri animatzera,  
zutabe hauxuei esker,  
atera nintzen aurrera.

4. Garai horretako ametsa,  
abokatu bihurtzea.  
Tarte horretan jun nintzen  
Donostia bizitzea,  
hasieran txintxo-txintxo  
jun nintzen aprobatzera.  
Gerora helburua zen  
oso ondo pasatzea,  
alkohola ez kontrolatuz  
egunero moskortzea.  
Igaro zan familiri  
telefonoik ez hartzea,  
lagun asko izatetik,  
hoitako asko galtzea.  
Hau ikusita arreba,  
jun zitzaion laguntzea.

6. Lekua eman zitzaion,  
Andoniren sorreari.  
Jendeak lagundu zion  
eman non aldaketari,  
gorputzak eskertu zidan,  
jotako garbiketari.  
Hau horrela izan arren,  
eutsi behar egoerari.  
Aurre egin behar diot,  
alkoholaren beharrari.  
Eskertzen dut maitasuna  
emanez familiari.  
Ikasketak amaituta  
oain ekin diot lanari.  
Berrero ere eskerrak,  
laundu didan jendeari.